

## KORONABIRUSA ATZOKO DATUAK

### GIPUZKOAN

166 positibo berri  
8.953 positibo guztira\* UCI In EAEn

1.757 hildako EAEn

### NAFARROAN

294 positibo berri  
13.128 positibo guztira UCI In Nafarroan

\*HERNANIN 273 (+12), ASTIGARRAGAN 53 (+1)

## Eskola kirola egingo da Urumea bailaran ere, baina behin programa berrantolatuta

Gipuzkoako eskola kiroleko entrenamenduak urritik aurrera hasiko dira, «kontaktu fisikoa mugatuz eta ingurune seguruetan»; eta begirale guztiak prestakuntza ikastaroa egin beharko dute. Lehiaketak urtarrilera arte atzeratuko dira.

### URUMEA ESKOLA KIROLA

Kirol erakundeekin, ikastetxeetako koordinatzaileekin eta ikasleen gurasoekin izandako bileraren ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Departamentuak astelehenean erabaki zuen eskola kiroleko lehiaketak urtarrilera arte atzeratzea, infantil eta alebinetan.

Hala ere, ziurtatu dute eskola kirola urrian hasiko dela, «kontaktu fisikoa murriztea lortzen bada». Horretarako, parte hartuko duten begirale guztiak prestakuntza ikastaro bat egin beharko dute, aurreratu dutenez.

2020-2021 denboraldiko eskola kiroleko programetan parte hartu ahal izateko, kirol diziplinetako jarduerak eta lehiaketak antolatzen dituzten erakundeek bermatu beharko dute, jardue-

rak eta lehiaketak kontaktu fisikorik gabe eta pertsonen arteko gutxieneko segurtasun distantzia mantenduz egingo direla. Eta behar izanez gero, arau hori betetzeko, «joko arauak egokitu» egingo dituzte.

Parte hartuko duten begirale guztiak, berriz, Kirolaren Euskal Eskolak abian jarritako prestakuntza ikastaroa egin beharko dute, horretarako.

### Urumea bailarako eskolek bilera egin zuten atzo

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Departamentuak eskola kirolarekin hasteko baimena eman duen arren, «eskola bakoitzaren esku» utzi dute entrenamenduekin hasteko erabakia. Atzo izan zuten bilera, Astigarraga eta Hernaniko eskola kiroleko koordinatzaileek,



Neskak futboleko topaketa batean, joan den urtean.

eta jarraitu beharreko pausoak markatu zituzten.

Horrela, adostu dute eskola kirola egingo dela, baina horretarako, ekainerako prestatu zen programa berrantolatuko dute aurrena, egungo egoerara egokituta. Hori horrela, urrian ez

da hasiko eskola kirola bertan, beranduago baizik.

Edonola ere, printzipioz bi herrietako eskola guztiak erakutsi dute asmoa, lanketa horri heltzeko; baina ez da segurua denek parte hartzea eskola kirolean, arazoak tarteko. **K**

## Tailerra egingo da gaur, ibilgailu elektrikoak eta mugikortasun jasangarrirako aukerak azaltzeko

Mugikortasun Asteak irauten duen bitartean Udalak hainbat errepide itxi eta mugatuko ditu, «oinetako eta txirrindularien mesedetan».

### ASTIGARRAGA MUGIKORTASUN ASTEA

Atzotik irailaren 22ra bitartean Europako Mugikortasun Astea ospatuko da, eta horren baitan, tailer informatiboa antolatu du Astigarragako Udalak. Arratsaldeko 19:00etan izango da, udal txean, eta ibilgailu elektrikoak eta mugikortasun jasangarrira-

ko aukerak zein diren azalduko dute bertan.

Mugikortasun Asteako ekimen garrantzitsuenek, berriz, trafikoaren behin-behineko moldaketekin dute zerikusia. Udalak adierazi duenez, aldaketak egingo dira aste honetan, oinetako eta txirrindulariei ibilbide segurua-koak eskaintzen saiatzeko.

### Errepide eta kaleetan, hainbat moldaketa egingo dira

Mugikortasun Aste honetan errepide eta kaleetan hainbat moldaketa egingo dituela aurreratu du Udalak, trafikoan sor daitezkeen eraginak aztertzeko. Herriko hainbat tokitan egingo dira, eta aldaketa hauek irailaren 27ra arte iraungo dute.

Kale Nagusia itxita egongo da zati batean, Pelotari kaleko bidegurutzetik 33 zenbakiraino, hain justu, autobusentzat izan ezik. Aldaketa honekin, «oinetako es-

pazio gehiago emango zaie, eta segurtasun gehiago txirrindulariei», aurreratu dute.

Bestalde, Bidebitarte poligonorako sarrera eta irteera bakarra baimenduko da, Portutxo sarrerako biribilguneetik. Horrela, Donostia ibilbidetik sarrera itxita egongo da poligonora, eta bertatik pasatzen den bidegorriko erabiltzaileei segurtasun gehiago emango zaie.

Eta azkenik, Portutxoko biribilgunean, Martutenetik doan bidezidorra itxiko da. **K**

## Asier Arregiren hitzaldia, gaur

### HERNANI HITZALDIA

Esna Hernani taldeak antolatutako ekitaldien artean, hitzaldia izango da gaur, Atsegindegin. Arratsaldeko 19:00etatik aurrera, Asier Arregi geo-biologiako Osasuna eta elektromagnetismoa hitzaldia emango du.

## Antzerkia, Biterin

### HERNANI ANTZERKIA

'Ene ba!' antzerkia izango da gaur Biterin, 20:00etan hasita, Txalo produkzioaren eskutik. Sarrerak aurretik eskuratu behar dira.

## Kuota ordaintzeko, kontu zenbakia oker

### HERNANI OKERRAK ZUZEN

Atzoko Kronikan argitaratu bezala, aurten kontu korrontetik egin beharko dute kuotaren ordainketa, Goiz Eguzkiko bazkideek. Baina atzo emandako kontu korrontean, zenbaki bat oker zegoen; hau da zuzena: ES 67 3035 0025 81 0251095275.

## Bertso eskolako izen-ematea, zabalik

### HERNANI BERTSO ESKOLA

Bertso eskolan izena emateko epea zabalik dago, eta horretarako hainbat bide daude: Biterin egin daiteke, irailaren 25ean, 17:00etatik aurrera; emailaz idatzi daiteke, [hernanibertsoescola@gmail.com](mailto:hernanibertsoescola@gmail.com) helbidera; edo 669 068 388 telefonora deitu.

## Euskal Sagardo dastatze gidatua, larunbatean

### HERNANI SAGARDOA

Sagardo dastatze berritzailea izango da larunbatean, eguerdiko 12:00etan, Atsegindegin. Sarrerak aurretik eskuratu behar dira, eta salgai daude Biterin, 5 euroan.

**BIKAIN**  
OKINDEGI TX GOZOTEGIA

**Eguneroko ogia beti bikain**

Elkano 12 - Tel.: 943 55 31 42  
Ezlagu poligonoa - Tel.: 943 55 00 89      20120 Hernani

**Tripontzi jatetxea**

PINTXOAK  
RAZIOAK  
ENTZALADAK  
PLATER KOMBINATUAK  
ARRAI FRESKOAK

ANDRE KALEA, 11 - HERNANI  
943 555 724

**AKELENEA**  
Erretegia - XIX Mendeko Sagardotegian

**Koldo eta Ana**

Asteleheneetik ostiralera  
**eguerdian irekita,**  
**larunbatetan**  
**eguerdi eta gauean.**

Oialume bidea 57 - 20115 Astigarraga - 943 333 333

**EGURALDIA**  
**GAUR** Bero kontuekin jarraituko dugu, baina hodeiak ugaritu egingo dira. Hego-ekialdeko haizea ibiliko da, tenperatura altuak izango dira. Zerua zenbait unetan estalita agertuko da, eta ez da baztertzeko zaparrada bakaren bat botatzea. **Min.19° / Max.32°**

**BIHAR** Bustitzeko eta ekaiza lehertzeko probabilitatea handitu egingo da, eta zaparradak bota eta ekaizak jo dezake egunean zehar. Ezegonkortasuna areagotu egingo da, eta lainoak gailendu dira. Hegoaldeko haizearekin jarraituko dugu. **Min.19° / Max.29°** (euskaletan)

**DOBERA**  
EUSKARA  
ELKARTEA

**LAGUNTZAILEAK**

**Hernaniko**  
Udala

**Astigarra**  
Udala

**Dobera**  
Udala

**Goizuetako**  
Udala

**Arango**  
Udala

**TAXIAK:** 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarra) 948 514037-948 514019 (Goizuetako) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarra) **DYA:** 943 464622  
**AUTOBUSAK:** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korroa Goizuetako-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarra) 948 510800 (Goizuetako) **Egunez:** **Castilla** Urbietako, 7 (Hernani) **943 552941** **Gauz:** **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** **Goizuetako:** Nagusia 64 **948 514353**

**ELKARTASUN PEDALKADAK**  
2garren edizioa

**DOBERA BAZKIDEAK / KRONIKALARIAK**

## Herriko ondarea ezagutarazteko hiru ekimen antolatu ditu Udalak

Jardueretarako aurretik eman behar da izena, Udal Artxibo Zerbitzuan edo Turismo Sailean.

**HERNANI ONDAREA**

Datorren ostegunean abiatuko da OndarHernani ekimena. *Kontaguzua Ondarea! Ondarea eta Hezkuntza* da 2020ko Ondarearen Europako Jaurdunaldiaren programaren izenburua, eta aurten Hernaniko Udalak aurreneko aldiz hartuko du parte ekimen honetan. Europako Kontseiluaren jarduerak da, eta ondarea herritarrengana hurbiltzea du helburu.

Ondarea osatzen duten elementuen gaineko sentsibilizazioa eta kontserbazioa sustatu nahi da programa honekin. Edizio honetan, antolatutako jarduerak transmisioaren zereginetan jarri nahi dute arreta, «betiere ondarea kontserbatzeari eta gozatzeari begira».

Programa hau Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Sailak koordinatzen du. Guztira ehun bat jarduerak eta 150 ekitaldi inguru programatzen dira lurralde osoan zehar; eta aurten 38 udalerritan egingo dira ekitaldiak, iraila eta azaroa bitartean. Inte-



Kaxkoa ere bisitatuko dute, urriaren 17ko bisita gidatuan.

resa duenak, jardunaldi hauen berri ematen duten liburuxkak eskura ditzake, Biteri kultur etxean, turismo bulegoan edo udal artxiboan. Ondorengo webgunean ere eskura daiteke informazio guztia: [gipuzkoa.eus](http://gipuzkoa.eus).

### Hiru jarduerak, Hernanin

Ekimen honen helburuarekin bat egin nahi izan du Udalak, programaren bosgarren edizio honetan. «Hernaniko Ondarea ikustarazteko aukera ematen digu, duela urte batzuk antolatzen ari garen

egitasmoei zabalkunde handiagoa emateko aukera ematen digulako». Horrela, hiru proposamen egin ditu Udalak, iraila eta urria bitartean egiteko: datorren ostegunean, [ondarea.hernani.eus](http://ondarea.hernani.eus) webgunearen aurkezpena izango da Biterin, arratsaldeko 19:30etan. Urriaren 3an, San Joan Bataiatzailea parroki-elizara bisita komentatua (erderaz, soilik) izango da. Eta azkenik, alde zaharreko bisita komentatua egingo dute, urriaren 17an; euskeraz eta erderaz, txanda ezberdinetan. **K**



Elkartasun Pedalkadak 2garren edizioa partaide guztiak eta beste zenbait herritar, Gudari Plazan.

## Gogotsu eman zieten pedalei, presoan aldeko bizikleta igoeran

**HERNANI ELKARTASUN PEDALKADAK** Erlojuaren aurkako proba gogoz ekin zioten 41 partaideek, joan den larunbatean. Batzuek taldearen babesean egin zuten

eta besteek, ordea, bakarka. Giro bikaina izan zen, eta kaleak jendez bete ziren, txirridulariak animatzeko.

Elkartasun Pedalkaden biga-

rren edizio honetan, bakarkako lehia Mattin Sanzberro izan zen azkarrena; eta taldeka, Lander Ibarburu eta Bingen Erdoziak osatutako bikoteak irabazi zuten.

## Ioritz Arrietak finalerdia, bihar

Espainiako Txapelketako finalerdia jokatu du hernaniarrak bihar, arratsaldeko 19:00etan, Iruñeko frontoian. Finala igandean jokatu da.

**HERNANI PELOTA**

Iruñeko Labrit frontoian jokatu du Ioritz Arrieta pelotariak, bihar arratsaldeko 19:00etan, Espainiako txapelketako finalerdia. Urtarrilean jokatu Espainiako Txapelketan porrota gogorra jaso zuen hernaniarrak, Espinal nafarraren kontra. Hala ere, denboraldi ofizialeko partida garrantzitsuenetarikoa da, eta Arrieta txapela irabazteko prest azalduko da ostiralean.

Aurten, San Cristobal elkarrekin ari da jokatu Arrieta, eta eskuz banakako modalita-

tean arituko da bihar, Iruñean. Norgehiagokan, Julen Retegi edo Albero Ongay izango du aurkari. Retegi eta Ongay Irurtzun elkarteko pelotariak dira, biak ere ASPE enpresako esku pelotari profesional ohiak.

### Igandean jokatu da txapelketako finala

Arrietak ostiraleko partida irabazten badu, igandean jokatu du finala. Labrit frontoian izango da hori ere, goizeko 10:00etan. Ostiralean Iker Espinal eta Xabier Santxo elkarren aurka lehiatu dira, eta partida honen garailearen aurka ariko da Arrieta igandean, ostiraleko aurkaria garaitzea lortzen badu.

Finalerdiak eta finala zuzenean ikusteko aukera izango da, Espainiako Federazioak eskuragai jarriko duen YouTube kanaleko loturaren bidez. **K**

## Diru-laguntzen deialdia, auzo elkarteentzako

Egoitza eta jarduerak Hernanin duten auzo elkarteek eskatu ditzakete, eta urriaren 13an bukatuko da eskaera egiteko epea.

**HERNANI DIRU-LAGUNTZAK**

Auzo elkarteentzako 2020 urterako diru-laguntzak eskatzeko deialdia zabaldu zen astelehenean, eta datorren urriaren 13a da eskaera aurkezteko azken eguna. Laguntza horiek eskatzeko aukera izango dute legez osatu eta Auzo Elkartearen Udala Erregistroan inskribatuta dauden elkarteek. Horrez gain, onuradun izateko beharrezkoa da beraien egoitza eta jarduerak esparrua Hernanin izatea.

Laguntza hauen helburua da auzo elkartearen funtzionamendua erraztea eta auzo hobetzeko egiten diren proiektuak eta jarduerak bultzatzea. Besteak beste, auzoek antolatzen dituzten jaiak eta kultur ekintzak egiten jarraitzeko emango dira diru-laguntza horiek.

Deialdi honetan diru-laguntzetarako aurreikusitako kopu-

ria 120.000 eurokoa izango da; guzti horren funtsa da auzoetako jaiak diruz laguntzea eta, bestalde, auzo elkarteek antolatutako kultur jarduerak ere laguntza ekonomikoa ematea.

Aurten, salbuespen modura eta COVID-19aren ondorioz, Udalak jakinarazi du elkarte bakoitzak 500 euro jasoko dituela funtzionamendu gastuetarako. Hala ere, horretarako eskaera egin behar da, lehenik. Kopuru horretatik gorako gastuak izanez gero, funtzionamendurako gastu guztiak aurkeztu eta zuzeritu beharko ditu elkarte bakoitzak. Eta gehenez ere, 1.200 euro jaso ahal izango ditu.

Bestalde, diru partidatik soberan geratzen den dirua bi kopuru haunditan banatuko da: diruz lagunduko zaie auzoetako jaiak, %70arekin; eta %30arekin auzoetako jarduerak kulturalak. Modu berean, Udalak adierazi du auzo elkarte guztiak ehuneko bera jasoko dutela.

Interesa duten pertsona edo kolektiboek Udalaren webgunean aurkitu dezakete informazio guztia: [www.hernani.eus/eu/dirulaguntzak](http://www.hernani.eus/eu/dirulaguntzak); eta Herritarren Harrera Zerbitzuan. **K**

### IRAGARKI MERKEAK

**Iñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesiologia, reiki, homeopatia, akupuntura,.... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**